

ALEGIAKO **ORRIE**



2022KO OTSAILA • ARGITARATZAILEA: ALEGIAKO UDALA • DISEINUA ETA INPRIMAKETA: GARAIKO



4/5 «LEHENTASUN ARGIEKIN, ITXAROPENTSU»

2 BARATZE
PARKEAK
EKOGUNEKO
KIDE IZATEN
JARRAITUKO DU

3 "ALEGIA APP"
APLIKAZIOA
HERRITARREN
ESKURA LASTER

6 UEMAK HERRIKO
MERKATARITZA
ETA OSTALARITZA
AZTERTU DITU
OTSAILAREN 25EAN
ODOLA EMATEKO AUKERA

7 KULTUR
ESKAINITZA
OPAROA NEGUA
ARINTZEKO

8 EGIA, JUSTIZIA,
ERRÉPARAZIOA ETA
MEMORIA
UDALEAN
AZKENALDIAN
JASOTAKO KEXAK

Baratze Parkeak Ekoguneko sareko kide izaten jarraituko du

Ekoizpen ekologikoa eta bertako produktuaren inguruko sentsibilizazioa indartu nahi ditu hitzarmen berriak

2013an jarri zen martxan Beloztegi auzoko baratze parkea. Kutxa Fundazioaren eskutik, Gipuzkoan sortzen ari zen baratze parkeen sareko kide izan zen hasieratik Alegiako. Kutxa Fundazioaren menpekoa den Kutxa Ekoguneak kudeatzen du baratze parke sare hori. Ingurumena babestea, jasangarritasunaren kultura sustatzea eta herritarrak ekoizpen ekologikora bultzatzea dira fundazioaren helburuetako batzuk eta Ekoguneak eta Alegiako Udalak elkarlan horretan aurrera jarraitzeko asmoari eusten diote.

Sinatu duten hitzarmen berrian lankidetzaren abiapuntu izango diren ondoko helburuak bildu dituzte:

- Barazki ekologiko eta bertakoaren sentsibilizazioa eta kontsumoa handitzea.
- Baratze Parkea herriko gune publiko bihurtzea. Baratzeetako erabiltzaileengan eta haurrengan naturarekiko errespetua sustatzea.

-Giza talde ezberdinen arteko elkarbizitza, elkarlana eta harremanak bultzatzea, belaunaldi ezberdinen arteko harremana sustatzea eta giza talde ezberdinei laguntzea.

-Baratze Parkeko baliabideen eta espazioen kudeaketa komunitarioa sustatzea.

-Aisialdi aktiborako topagune bat sustatzea.

-Baratze Parkean eta bertako instalazioetan irisgarritasuna bermatzea.

Une honetan 38 lursailek osatzen dute Beloztegi Herri Baratzak elkarteak kudeatzen duen parkea. Baratze parkeari aholkularitza orokorra ematen jarraituko du eta Kutxa Ekoguneak Alegiako Baratze Parkearen beharrei eta eskaerei egokitutako ekimen zehatzak adostuko ditu Udalarekin.

Baratze Parkearen egoeraren jarraipena egingo du (azpiegiturak, konposta egiteko eremuak eta lurren egoera) eta Udalari igorriko dizkio egindako ikuskapenen emaitzen txostenak.

Lurren emankortasuna eta osasun ona bermatzeko, Baratze Parkeko lurren azterketa egingo du Udalak bi urtean behin, eta emaitzen txostena Kutxa Ekogunera bidaliko du.

Norbaitek baratze parkeko erabiltzaile izateko interesa izango balu, udaletxean eskatu dezake informazioa. Bete beharreko baldintzen berri emango zaio eta funtzionamenduaren berri izan nahiko balu, elkarteko kideekin harremanetan jartzeko aukera ere eskainiko litzaioke.

Abenduan lapurreta eta kalteak

Iragan abenduaren hasieran lapurreta bat izan zen baratze parkean. Etxolaren inguruan zegoen arraska bat osorik eraman zuten eta beste baten oinarrian kalteak eragin zituzten, iturria hondatzearekin batera. Baratze parkeko erabiltzaileek adierazi zuten ez zen lapurretaren bat jasaten zuten lehen aldia. Barazkiren batzuk ostu izan zizkietela esan zuten baina "horrelako kalteak eragitea serioagoa zela" adierazi zuten. Udalak ere salatu zuen gertaera eta antzekorik ez errepikatzea espero du.



"Alegia APP" aplikazioa eskura izango dute herritarrek laster

Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa errazagoa eta arinagoa egitea du helburu gailu mugikorren bidez

Alegiako Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa erraztu eta azkartuko duen tresna berri bat martxan izango da laster. Gailu mugikorretarako "Alegia APP" aplikazioa herritarren esku izango da hemendik gutxira eta tresna horren bidez, komunikazio kanal berri bat irekitzeaz gain, mugikorrean bertan herriko berri jasotzeko aukera izango dute herritarrek eta baita Udalarekin zerikusia duten izapideak egiteko aukera ere, ordenagailu batekin webgunean sartzen ibili beharrik gabe.

ACV Multimedia enpresa arduratu da tresnaren garapen teknikoaz eta Udalarekin elkarlanean, atal ezberdin ugariz osaturik egongo den aplikazioa diseinatu da. Berriak, izapideak egiteko aukera, Udalarekin harremanetan jartzeko bideak, herriari eta bertako zerbitzuei buruzko informazioa, Udal azpiegituren erreserbak egiteko aukera eta beste topatuko ditu aplikazioa deskargatzen duenak. Horrekin batera, Udalak zabaldu nahi duen edozein informazio mugikorrean alerta bidez jasotzeko aukera ere eskainiko da, hala nahi duten erabiltzaileek aktibatuta izan dezaten.

Orain arte herritarrek Udalarekin harremanak izateko zituzten bideak (udaletxeko bulegoak, webgunea...) albo batera utzi gabe, komunikazio bide berri eta azkarrago bat jarri nahi

da herritarren eskura. Hainbat gairen inguruan Udalak herritarren iritzia jakin nahi duenean ere, aplikazioaren bidez galdeketak egiteko aukera izango da eta horrek prozesu ezberdinak arintzea ekarri dezake, gailu mota honek horrelako gauzak azkarrago egin ahal izatea ahalbidetzen duelako.

Android eta IOS sistemetan erabili ahal izateko prestatu dago "Alegia APP" aplikazioa. Aste gutxiren buruan herritarren eskura izango da eta erabileraren inguruan edonork izan ditzakeen zalantzak argitzeko kanpaina bat ere egingo da, katean erabilera aholkuekin jarriko diren hainbat kartelen bidez. Udalak bere ohiko kanalen bidez jakinaraziko du noiz egongo den aplikazioa herritarren eskura.



Lehentasun argiekin, itxaropentsu

Egoera aldatuko denaren esperantzarekin eta ahal den neurrian aurrera urratsak emateko asmoarekin osatu da 2022ko Udal aurrekontua

Alegiako Udaleko osoko bilkurak iragan abenduaren 3an onartu zuen 2022ko ekitaldirako Udal aurrekontua. Aurtengoan ere, oraindik inguruan dugun pandemia egoerak eta bere ondorioek nahi baino eragin handiagoa izan dute kontuak orekatzeko orduan.

2022rako aurreikusten den diru sarreraren kopurua osoa 2.260.861,26€koa da, 2021ean baino 183.069,70€ gehiago (%8,81 gehiago). Diru sarreraren igoera esanguratsuenaren Foru Funtsetik datorrena da; 1.347.903,00€, 2021ean baino ia %16,66 gehiago. Udalak zituen kreditu guztiak amortizatu dira eta une honetan kanpo zorra 0 da. Horrek, inbertsio errealetarako eskura diru gehiago izatea ahalbidetzen du.

Diru laguntzen baiezekoak eta proiektuei buruzko oniritziak iritsi ahala, aurrekontua moldatuz joatea da asmoa. Europatik etor daitezkeen 'NEXT GEN' laguntzak hobekuntza energetikora bideratuko dira eta horiek %100ekoak ez direnez, gastu arrunten sailean lerro berri bat ireki da, aurrekontu osoaren %1,54a, hain zuzen ere (34.800€).

Ziurtasunik gabeko urtea aurreikusita, pandemiak ekarri zituen gastu bereziki 2022rako aurrekontuan ere hor jarrait-

zen dute, gastu arrunten kopuruan igoera esanguratsua markatuz.

Pandemiak ekonomia astintzen jarraitzen du eta osasun krisiak dirauen bitartean, aurrekaririk gabeko egoerak sor daitezke oraindik. Krisiaren bilakaera zainduz eta urte osoan zehar gastuak zuhurtziaz begiratzuz, aurrekontuaren edukia egokitu beharko balitz ere, Kreditu Globalaren bidez larrialdiei eta ustekabeei erantzuteko gaitasunari eusten zaio.

Gauzak horrela, zaintza eta gizarte babes publikoa, enplegu sustapena eta krisiaren ondorioei aurre egiteko neurriak izan dira arreta berezia jarri zaien arloak. Aurreko urteetatik datozen ekintza eta eskuhartzeekin jarraitu ahal izango da. Txintzarriak Martxan eta Estimulazio Kognitibo hobetzeko egitasmoetan, osasun neurriak zorrotu badira ere, animoa da nagusi parte hartzaileen artean.

Ibai garbiketa eta naturguneen txukuntzetaz URZAIN TALDEA arduratuko da 2022an ere. Berdintasun eta indarkeria ezberdinei aurre egiteko lanetak aurreko urteetan egituraturiko plangintza jarraitzeaz gain, eskualdeko Emakumeen Etxea errealtate bihurtuko da hasi berri dugun urtean. Alegiak bertan jaso ahal izango dituen zerbitzu ugarien zerrenda aurrerago zabalduko da.

Herritarren partaidetza sustatzeko mugikorretako aplikazioa garatzeko lanak amaitzear daude. Gutxi barru, ALEGIA APP aplikazioa nahi duen orok jaitsi ahal izango du mugikorrera. Doako zerbitzu hau ez da hala ere digitalizatorako pauso bakarra izango; Udal webgunean eta APPan herritarren tramiteak errazteko sistemak garatzen urratsak ematen jarraituko da. Energia berriztagarri ezberdinetan inbertsioak egiteari utzi gabe, mugikortasunera, ingurumenera, hondakin sistemen hobekuntzara eta beste hainbat eremutara zabalduko dira lanketa teknikoak. Efizientzia energetikorako legeak agindutako pausoak emateari ezin zaio utzi.

Zaintza eta gizarte babes publikoaren arloan, Gizarte Zerbitzuetara 239.297,10€, Osasun Publikoaren Babesera 11.695,00€ eta Hezkuntzara 184.756,23€ bideratuko dira.

Laburbilduz eta baikorregiak izan gabe, estuasun gehiegirik gabe egingo zaio aurre urteari, lehentasunei garrantzia emanaz eta beti ere xumetasunetik abiatuta. Lehen hilabete hauek aurreko urtearen oso antzekoak datozela badirudi ere, urtearen bigarren erditik aurrera beste begi batzuekin zenbakiak begiratzeko aukera izateko esperantzari eusten zaio.

Sarrerak**2021****2022****A) Eragiketa arruntak**

1. Kap.	Zuzeneko zergak	468.700,00	473.300,00
2. Kap.	Zeharkako zergak	20.000,00	20.000,00
3. Kap.	Tasak eta bestelako zergak	198.960,00	217.104,00
4. Kap.	Transferentzia arruntak	1.388.931,56	1.549.257,26
5. Kap.	Ondare sarrerak	1.200,00	1.200,00

B) Kapital-eragiketak

6. Kap.	Inbertsio errealak besterenganatetik eta hiri-gintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk	0,00	0,00
7. Kap.	Kapital transferentziak		0,00
8. Kap.	Finantza aktiboak	0,00	0,00
9. Kap.	Finantza pasiboak	0,00	0,00

2.077.791,56 €**2.260.861,26 €****Gastuak****2021****2022****A) Eragiketa arruntak**

1. Kap.	Pertsonal gastuak	775.170,71	791.504,43
2. Kap.	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	736.916,64	896.275,83
3. Kap.	Finantza gastuak	7.862,41	0,00
4. Kap.	Transferentzia arruntak	408.921,92	430.781,00
5. Kap.	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	50.000,00	70.000,00

B) Kapital-eragiketak

6. Kap.	Inbertsio errealak	7.500,00	72.300,00
7. Kap.	Kapital transferentziak		
8. Kap.	Finantza aktiboak		
9. Kap.	Finantza pasiboak	91.419,88	0,00

2.077.791,56**2.260.861,26**

6

UEMAK herriko merkataritza eta ostalaritza lokalen inguruko lanketa bat egin du

Datuak bildu, hizkuntza egoera aztertu eta beraien jardueretarako lagungarri izan daitekeen materiala eskaini die

2021ean zehar Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) lanketa berezi bat egin du Alegiako merkataritza eta ostalaritza lokalekin. Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuek beraien esku jartzeaz gain, datuak bildu dira, hizkuntza egoeraren azterketa egin da, materialak aurkeztu zaizkie eta aholkularitza eskaini zaie. Ondoko materiala eskaini zaie:

- Pertsonalizatutako euskara hutsezko euskarri edo oharak.
- Establezimendu mota batzuetarako hiztegiak (jartetxe eta tabernetarako, janari dendetarako, ile apaindegietarako, arrandegietarako, ...)
- Zabalik / itxita txarteltxoak, atean jartzekoak.
- Bestelakoak: faktura takoak, ordainagiriak, loteria takoak, merkealdi kanpainetarako euskarriak...

Bisitatu diren hogeitabi establimendutatik 172 kartel eskaera jaso dira eta jada jaso dute eskaturiko material hori. Bisita horietatik hamabostetan euskara izan da komunikazio hizkuntza eta bostetan gaztelera.

UEMAk garatzen dituen kanpaina horien helburua udalerri euskaldunetan euskara normalizatzea da eta UEMAK berak eskerrak eman nahi dizkie Alegiako merkatariei eta ostalariei egindako bisitetan jasotako harrera onagatik.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Odol Emaileak



Otsailaren 25ean odola emateko aukera

16:30etik 20:10era bitartean kultur etxean izango da eta egunean bertan goizez hitzordua hartu beharko da 943 00 78 84 zenbakira deituta

Otsailaren 25ean odola emateko aukera izango da Alegian. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak urtero hiru bisita egiten ditu herrian odola eman nahi dutenek bertatik bertara eman ahal izan dezaten. Bada, otsailaren 25ekoa urteko lehen bisita izango da eta odola eman nahi dutenek kultur etxean izango dute horretarako aukera 16:30etik 20:10era.

Azkenaldian hainbatetan adierazi dute odol emaleen elkartetik odola falta dela. Hori dela eta, Udaletik odola emateko moduan dauden herritarrei odola ematera animatzeko deia egiten zaie. Eskuzabaltasun ariketa horrek gaur egun dagoen gabezia hori estaltzen lagunduko du eta beharrezko suertatzen den edonork eskertuko duen keinua izango da.

Otsailaren 25erako aurrez hitzordua hartu beharko da. Odola ematera joan nahi dutenek 943 00 78 84 telefono zenbakira deitu beharko dute egunean bertan goizez. Ekainean eta urrian ere izango da Alegian odola emateko aukera baina herritarrei gogorarazi nahi zaie urtean zehar edozein unetan eman dezaketela odol emaleek Donostian duten egoitzan.

Bete-betea dator neguko kultur eskaintza

Olatz Salvadorrek otsailaren 11n eskainiko duen kontzertua eta Kimua dantza taldearen 'Generoa' ikuskizuna dira hitzordu aipagarrienetakoak

Urte berriari indartsu ekingo zaio kulturalki Alegian. Urtarrilean hasi eta apirilera bitartean luzatuko den egitaraua prestatu du Kultura batzordeak. Aurtengoa gainera urte berezia izango da herrian. Izan ere, Inaxio Begiristain jaio zeneko mendeurrena betetzen da eta Intxurre elkarteak 50 urte betetzen ditu.

Hain zuzen ere, elkartearen inguruko dokumental batekin hasi zen egitaraua urtarrilaren 18an. Orduetik, egitarauko beste ekitaldi batzuk ere egin dira baina otsailetik aurrera ere izango da zer ikusia.




Otsailak 4, ostirala
Txintxarri Abesbatza kantari Santa Ageda bezperan.
18:30etik aurrera.



Martxoak 11, ostirala
Kimua dantza taldea: 'genEroa'
22:00etan Elorri pilotalekuan.



Otsailak 11, ostirala
Olatz Salvadorren kontzertua.
22:00 Elizpe zinean.



Martxoak 20, igandea
'Elkarrekin dantzan!'
Sutarri dantza taldea.
Eguerdian plazan.



Otsailak 17, osteguna
Ipuin kontaketa: 'Kontalari bi'.
17:30ean liburutegian.



Martxoak 22, asteartea
Ipuin kontaketa: Dorleta Kortazar.
17:00etan liburutegian.



Martxoak 8, asteartea
Emakumearen nazioarteko eguna.



Apirilak 8, ostirala
Sutarri dantza taldearen emanaldia.
22:00etan Elizpe zinean.

Egia, justizia, erreparazioa eta memoria

2021eko abenduan 31n, euskal preso eta errefuxiatu politikoen etxeratzea eskatzeko manifestazioaren amaieran, politika penitentiario honen amaieraz gain, egia, justizia, erreparazioa eta memoriaren aldeko eskaera egin zen

Bertan, azken hamarkadetan gatazka politikoak eragin dituen Alegiarekin lotura zuten biktimen zerrendatze bat irakurri zen, Jose Atanes 2003an N-lean ertzaintzak eraila, Martzelo Gartzandia, 1982an Guardia Zibilaren GARek Lasarte Orian eraila eta modu berezian, Paulo Garaialde Jauregizabal, 1982ko urtarrilaren 2an Triple Ak bahitu eta ondoren Berastegin eraila.

Erailketa hauez gain, Jose Miguel Etxeberria Alvarez "Naparra" k desagertuta jarraitzen duela salatu zen baita.

Alegiako Udalak biktima guztiek duten egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea defendatzen jarraituko du eta guztien memoria kontuan hartzeko lan egiteko konpromisoa berresten du. Aldi berean, senide eta ingurukoei babesa eta elkartasuna adierazten die.



Udalean azkenaldian jaso diren kexak

Azkenaldian gai ezberdinekin loturiko kexak jaso dira Udalean. San Juan kalean aparkatzeko debekua, hondakinak dagokien egunetatik eta lekuetatik kanpo ateratzea eta kaleko animaliak elikatzearen ondorioak

Kexak aurkezteko moduaren inguruan, aukera ezberdinak daude. Udal bulegoetan eta webgunearen bidez. Bai modu batera edo bai bestera, ezinbestekoa da kexa jartzen duen pertsona identifikatzea eta kontakturako bide bat uztea, Udalak erantzun ahal dezan. Modu anonimoan jasotzen diren kexei erantzutea ezinezkoa da. Udalak eskertzen du herritarrek horrelako kexak eta iradokizunak bidaltzea, baina eskatzen diren datuak betez egitea eskatzen da.

Udala jakitun da hainbat erabiltzailek ez dutela San Juan kalean aparkatzeko debekua errespetatzen eta beste hainbatek hondakinak nahi dituen egunean, lekuan eta moduan ateratzen dituela. Horren aurrean, gainontzeko herritarrekiko errespetuz jokatzeko eskatzen da. Arauak denontzat dira. Kalean aparkatzeak hainbat eragozpen sortu ditzake kalean bizi diren pertsonentzat eta hondakinak gaizki ateratzeak, aipatu eragozpenez gain, higijenearekin loturiko arazoak ere eragin ditzake.

Horrenbestean, elkarbizitzaren aldeko ariketa bat egitea eta enpatiaz jokatzeko eskatzen zaie herritarrei. Jarrera bereko horiek irauten badute Udalak bestelako neurriak hartzeko aukera aztertuko du.